



DOPPLER EKOKARDIOGRAFIA KOLOREAN

Zertan datza proba?

Bihotza eta bihotz-balbulak ultrasoinuen bidez bistaratzean datza, modu egokian funtzionatzen duten jakiteko.

Nola etorri behar dut probara?

Ez duzu ezer berezirik egin behar, eta, beraz, ez da behar baraurik egotea.

Proba non egingo didate?

Arabako Unibertsitate Ospitaleko Txagorritxu egoitzako 5. solairuan; edo Kanpoko Kontsultetako eraikineko 3. solairuan, kardiologia-konsultan.

Proba nola egingo didate?

Ohatila batean etzanda egongo zara, gerritik gora biluzik. Kabledun eranskailuak jarriko dizkizute bularrean, azterketan zehar elektrokardiograma ikusteko. Ondoren, mikrofono antzeko bat jarriko dizute bularreko alde desberdinetan, bihotza eta balbulak alde desberdinetatik miatzeko. Azterketan zehar, zure bihotzaren barruan odola zein abiaduratan dabilen adierazten duten hotsak entzun ditzakezu. Miaketak ez dizu inongo minik eragingo. Azterketak 20 minutu inguru iraungo du.

Zer egin behar dut probaren ondoren?

Bizitza normala egin dezakezu, eta behar baduzu, zure eguneroko laneko edo etxeko zereginetara itzuli. Probaren emaitza zure historia klinikoari erantsiko zaio.